

GOIERRIKO GIZARTE KONTSEILUA

Gaia: Goierriko Gizarte Kontseiluaren dinamizazioa.

Data: 2009/06/10 **Lekua:** Goieki, Ordizia **Iraupena** 16.00 – 17.30

Parte Hartzaileak, guztira 18:

- Alicia Gomez (Gurutze Gorria)
- Jose Manuel Otegui (Caritas)
- Miguel Calvillo (Gueske eta Nagusilan)
- Asun Jauregi (Fundación Goyeneche. Grupo Ordizia)
- Belen Balerdi (Kimetz emakume elkarte)
- Pilare Mujika (Berritzegunea)
- Loli Garcia (Inem)
- Ana Olazabal (Lanbide eta Goierri eskola)
- Ainhoa Benito (Lazkaoko gizarte langilea)
- Aitor Aldasoro (Beasaingo udala)
- Marian Atin (Gabiriako udala)
- Ioritz Imaz (Idiazabalgo udala)
- M^a Paz Garmendia (Legorretako Udala)
- Pili Elorza (Zegamako udala)
- Begoña Puras (Goieki)
- Ainara Ormaetxea (Goieki)
- Iker Galparsoro (Goieki)
- Laida Plazaola (Goieki)

Gai zerrenda:

1. Gizarte kontseiluaren sorrera ulertu. 2005 urtetik egindako lana.
2. Gizarte kontseiluaren dinamizatorako metodologia.
Kontseiluan agente berriak parte hartzeko proposamena.
3. Metodologiaren inguruan parte hartzaileen iritzia jaso.

4. Bileraren ondorioak azaldu.

1. **Gizarte kontseiluaren sorrera** ulertzeko. Word Dokumentua “ **Nola sortzen da gizarte kontseilua**” atxikitzen da.
2. Gizarte Kontseiluaren **dinamizazioa**. “**Gizarte kontseiluaren dinamizazioa**” Power Point Dokumentua atxikitzen da.
3. **Metodologiaren inguruan parte hartzaileen iritzia** jaso.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gizarte Politikarako sailetik. Gizartearen modelo berri bat eratzen ari omen da. Honela zerbitzuak gizartera hurbildu nahi dira. Konpromisoa bat eskatzen da gizarte arloarekin.

Osasun eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazio beharra agertzen da berriro ere.

Gizarte Politikarako, sailburuordeak, **Fernando Fantova** . **Azterketa** bat egiten ari dira gizarteko satisfazio mailaren inguruan, oinarritzkoa da osasuna eta gizarte soziala uztartzea. Adineko Pertsonen inguruan, dependentzi gaiarekin lotuta **igogailuen gaia** kontuan izan behar da, eta azkenik famili inguruan pertsonak mantentzearen garrantzia azpimarratzen du, honela **etxez etxeko laguntzari giza balorea** gehitzea. (*)

- **Batzordeak** eratuko dira **gai konkrituak** aztertzeko. Immigrazio eta emakumeen batzordea martxan da. Proposamen berriak; Etxebizitzaren batzordea eta adineko pertsonena da. Kontseiluan parte hartzen duten guztiei zabaltzen zaie aukera batzorde hauetan izen eman eta parte hartzeko, horrela batzorde batean baina gehiago parte hartu dezakete agenteek, beharrezkoa ikusten badute.
- Kontseiluan **parte hartzaile berriak** beharrezkoak direla ikusten da, gizartearen errealitatea jasotzeko. Horrela, **gazteak, sindikatuan eta**

gaietan jorratuak dauden aholkulariak proposatu dira Goiekitik.

Eskualdean esanguratsua izan daitekeen agente berriak proposatzeko aukera ematen da.

- Batzordeak talde dinamikoak dira, eta **helburu konkretuak** landuko dituzte.
- Kontseiluan, **batzordeetan egiten dena azalduko** da alde batetik, baina bestetik **hausnarketarako guneak** planteatu beharko dira, gizarte modeloa egiten joateko.
- Batzordetako **gaiak ondo aztertu** behar dira. Gizartean dauden beharrak eta baliabideak zein diren jakitea beharrezkoa da. Gaien kontextua ezagutu behar da, egiten diren proposamenak aurrera eraman daitezkeela jakiteko eta teoria hutsean ez geratzeko. Aholkularien iritzia jaso beharko da.
- Gai konkretuak lantzen diren batzorde hauek, udaletxeetako kezkak ere jasoko dituzte. Eskualdeko udal eta agenteek jakin beharko dute zein diren jorratzen ari diren gaiak, ekarpen gehiago egoteko eta agente desberdinen ikuspuntua jasotzeko.
- Ez da beharrezkoa izango kontseiluko agenteak batzordeetan parte hartzea. Baina kontseiluko bileretara etorriko dira gizarte gaien inguruko jarraipena eta hausnarketa egiten laguntzeko.

Bilera arratsaldeko 17.30etan amaitzen da. **Ekainaren 30a bitartea utziko da, metodologiaren inguruko aldaketak eta ekarpenak egiteko.**

Ondoren lan batzordeak nola landu jorratuko da.

(*) Miguel Calvilloren hitzak hobeto ulertzeko dokumentazio bidaltzen da, bileran emailez pasatuko zela erabaki zen.

Dokumentazio interesgarria www.goierri.org web gunean zintzilikatuko da. **Gizarte arloaren sailean eta baita Agenda 21 sailean.**